

EZAUGARRIEN KOADROA

KONTRATAZIO ORGANOA

Zuzendari nagusiak, Administrazio Kontseiluko presidentearekin edo idazkariarekin batera, edo Administrazio Kontseiluak berak, edo beste batzuek –hala dagokionean eta zuzenbide pribatuko arau aplikagarriekin bat etorriz– egoki irizten dieten pertsoneri berariazko ahalmena eman ahalko diete, kontratuari dagozkion jarduera zehatzak egikaritzeko.

A) KONTRATUAREN XEDEA

BILBOKO KONGRESU ETA MUSIKAREN EUSKALDUNA JAUREGIAN INSTALATUTA DAGOEN ESZENA MAKINERIARI PREBENTZIOKO ETA KONPONKETAKO OHIKO MANTENTZE LANAK ETA URTEKO AZTERKETA EGITEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA.

B) GEHIENEZKO LIZITAZIO OINARRIA:

AZALPENA	Lizitazio mota (Zenbatekoa eurotan, BEZ gabe)
Eszena makineriaren ohiko mantentze lanen eta urteko geldialdiaren urteko prezioa, Euskalduna Jauregirako.	475.000
Mantentzeko arduradun nagusiaren aparteko eskulan ordua, astelehenetik ostiralerako ohiko ordutegian (08:00etatik 20:00etara bitartean)	73,50
Mantentze teknikarien aparteko eskulan ordua, astelehenetik ostiralerako ohiko ordutegian (08:00etatik 20:00etara bitartean)	44,00
Mantentzeko arduradun nagusiaren aparteko eskulan ordua, astelehenetik ostiralerako gaueko orduetan.	106,00
Mantentze teknikarien aparteko eskulan ordua, astelehenetik ostiralerako gaueko orduetan.	63,00
Mantentzeko arduradun nagusiaren aparteko eskulan ordua, jaiegunetan.	106,00
Mantentze teknikarien aparteko eskulan ordua, jaiegunetan.	67,00
Mantentzeko arduradun nagusiaren ezohiko eskulan ordua, jaiegunetan.	36,50
Mantentze teknikarien ezohiko eskulan ordua, jaiegunetan.	23,50
Mantentzeko arduradun nagusiaren ezohiko eskulan ordua, jaiegunetan eta gaueko orduetan.	36,50
Mantentze teknikarien ezohiko eskulan ordua, jaiegunetan eta gaueko orduetan.	23,50

C) KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren indarraldia bi urtekoa izango da, 2014eko maiatzaren 1etik aurrera; alabaina, amaitu baino lehen, bi alderdiek adosturik luzatu ahalko da, urtebeteko aldietan, kontratuaren iraupenak –luzapenak barne– lau urte gainditu gabe, betiere.

D) ESLEITZEKO MODUA

Irekia, Euskaldunaren kontratazioko barne jarraibideekin bat etorriz. Jarraibideok web helbide honetan daude: www.euskalduna.net.

E) PROPOSAMENAK AURKEZTEKO TOKI ETA EGUNA

Euskaldunaren instalazioak:

Abandoibarra 4. 48011 BILBAO (BIZKAIA).

2014ko martxoaren 24ko 10:00ak arte.

F) KAUDIMEN FINANTZARIOAREN EGIAZTAGIRIAK

- Azken bi ekitaldietako kontuak, behar bezala kautotuta, eta kanpoko enpresa batek egindako azken ikuskapen ekonomikoaren txostena, salbuespenik eta aparteko kasurik gabe, behar bezala kautotuta.
- Finantza-erakunde batek ikus-onetsiriko ziurtagiria, enpresa lizitatzaila, lizitazioa argitaratu ondorengo datetan, ordaindu gabeko onarpenen erregistroan (OOE) inskribatua ez dagoela adierazteko.

G) BERMEAK

Berme hauek ezarri dira:

BEHIN-BEHINEKO

BERMEA

BEHIN BETIKO BERMEA

Gehienezko lizitazio oinarriaren %2, BEZ gabe
Esleipen zenbatekoaren %5, BEZ gabe

H) PREZIOEN BERRIKUSPENA

Kontratu honen prezioak berrikusi ahal izango dira, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 77.etik 82.era bitarteko artikuluekin nahiz Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Arautegi Orokorreko 104.etik 106.era bitarteko artikuluekin bat etorriz.

I) KAUDIMEN TEKNIKOAREN EGIAZTAGIRIAK ETA, HALA BADAGOKIO, KONTRATISTAREN SAILKAPENA.

- Kalitatea bermatzeko UNE-EN-ISO 9001 arauaren arabeko sistema bat ezarri izanaren ziurtagiria, indarrean eta erakunde baimendu batek emana.
- UNE-EN-ISO 14001 arauaren arabeko ingurumen-sistema bat ezarri izanaren ziurtagiria, indarrean eta erakunde baimendu batek emana.
- Laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzeko OHSAS 18001 arauaren arabeko sistema bat ezarri izanaren ziurtagiria, indarrean eta erakunde baimendu batek emana.
- Jatorrizko ziurtagiriak, antzeko zerbitzuak hartzen dituzten hiru enpresak gutxienez emanak, azken 5 urteetakoak, urteko gutxieneko zenbateko unitarioa 200.000 euro izanda. Antzeko zerbitzutzat joko dira 1.1 "Xedea" eta 1.2 "Irismena" ataletan jasotako instalazioen antzekoetan egiten diren mantentze lan teknikoak, eta halakoak berariaz adierazi beharko dira eskatzen diren ziurtagiritan.
- Enpresaren sailkapena:
 - P01D
 - P07D
 - Q01D
- Esleipendunak sistema osoa kontrolatzeko eta programatzeko sistemari buruzko ezagutza egiaztatuko du, bereziki enpresa instalatzaileak eta/edo fabrikatzaileak egindako Euskalduna Jauregiko eszena makineriaren kontrol sistemei dagokienez. Horretarako, softwarearen fabrikatzailearen (BBH Sistemas) ziurtagiria aurkeztu beharko du, lizitatzaila mantentze lanen zerbitzua emateko gaitasuna duela ziurtatuta.
- Zerbitzua emateko izendatutako langileek laneko arriskuen prebentzioaren arloko prestakuntza dutela egiaztatu beharko dute. Oinarrizko mailako jardueri dagokien prebentzioko prestakuntza.
- Izendatutako langile teknikoaren prestakuntza.
Egiaztatzeko, langileen titulu akademikoak eta curriculum izenpetuak aurkeztuko ditu.
 - Mantentze-taldeko arduradunak:

Goi mailako ingeniarietzako prestakuntza eta, gutxienez, 10 urteko esperientzia eszena makineria mantentzeko arduradun gisa, 1.1 "Xedea" eta 1.2 "Irismena" ataletan jasotako instalazioen antzekoetan.

- Zerbitzuari atxikitako teknikariek mantentze lanetan gutxienez hamar urteko esperientzia izan beharko dute 1.1 "Xedea" eta 1.2 "Irismena" ataletan jasotako instalazioen antzekoetako eszena makineriaren arloan, bai eta LH IIko edo goi mailako modulu bateko prestakuntza ere.

J) AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- Kaudimen tekniko eta ekonomikoko baldintzak betetzeko behar behar besteko agiriak.
- Metodologia txostena, kontratua baldintza teknikoaren agirian jasotako zehaztapenen arabera egikaritzeko moduari buruzkoa, lantaldearen egitura zehaztuta, nola ohiko mantentze lanetarako hala urteko geldialdirako, eta berariaz adierazirik zerbitzuaren funtzionamendua bermatzeko arduraduna, baje, oporren eta abarren kasurako jarraipen plana, zerbitzu lasterraren bermea, prebentzioko eta konponketako mantentze plana, eta abar.
Txostenak, gehienez, DIN A-4 formatuko 50 orri izango ditu, orrialde bakarrean idatzita 12 tamainako Arial letrarekin.
- Lizitzaileak baldintza-agirirako proposatzen dituen hobekuntzak, Euskaldunak gastu handiagorik izan gabe, haien balio ekonomikoa adierazita.
- Euskalduna Jauregian emango den mantentze zerbitzuari aplikatuko zaion erreferentziako lan-hitzarmena.
- Prezioak berrikusteko formula.
- Segurtasun eta osasun plana. Laneko arriskuen prebentzioaren arloan, instalazioari eta lanak egiteari aplikatzekoak zaien legedia ezartzeko eta betetzeko konpromisoa.

K) ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

□ 55 PUNTU:

Eskaintza ekonomikoa:

Honela banakatuta:

- Mantentze lanak eta urteko geldialdia egiteko zerbitzuaren urteko zenbatekoa: 50 puntu.
- Aparteko eta ezohiko orduen prezio unitarioak, kategoria profesionalaren arabera: 5 puntu.

Prezioaren balorazioari buruzko oharra

1. oharra

Onartutako eskaintzen artean preziorik txikiena eskaintzen duenari puntuaziorik handiena emango zaio. Hori oinarri harturik, aurkezten diren gainerako prezioei proportzioz emango zaie puntuazioa. Eskaintza ekonomikoa balioztatzeke, ondorengo formula erabiliko da:

$Y_i = \dots \dots \dots Pts \times (Ob/O_i)$

Non:

Y_i: i eskaintzaren puntuazioa.

O_i: i eskaintzaren zenbatekoa.

Ob: onartutakoen artean, eskaintza txikienaren zenbatekoa.

□ 25 PUNTU:

Metodologia txostenaren kalitatea, zehaztasun mailari, planteamenduaren interesari eta proposatutako ekintzei erreparatuta.

□ 15 PUNTU:

Lizitzaileak proposatzen dituen hobekuntzak, haien zehaztasuna, balio ekonomikoa eta Jabetzarentzat jardueraren aldetik duten interesa aintzat hartuta.

□ 5 PUNTU:

2., 3. eta 4. urteetako prezioak berrikusteko formula.

L) EGIKARITZE EPEAK / EPE PARTZIALAK (baldintza teknikoetan ezarrita)

M) ZIGORREN ZENBATEKOA (baldintza teknikoetan ezarrita)

N) ESKATZEN DIREN ASEGURU KONTRATUAK (baldintza teknikoetan ezarrita)

O) ESLEITZEKO PROZEDURARI BURUZKO INFORMAZIOA

Kontratzailearen profila: <www.euskalduna.net> webgunea.

OHARRAK:

Instalazioak bisitatzeko ezinbesteko baldintza izango da enpresek esleipenean parte hartu ahal izateko. Instalazioak bisitatzeko interesa duten enpresek horren berri eman beharko dute, bisitaren eguna zehazteko; horretarako, mezu elektronikoa bidali beharko dute info@euskalduna.net helbidera, enpresaren izena adierazita, bai eta Erakundetik joango diren pertsonen izenak ere.